

Lupa bat iraganera, aurrera egiteko

Maddi Txintxurreta 2025eko azaroaren 26a

Entzun ▶



Kepa Iribar, Arroabeen, eman berri duen lana eskuetan duela. (M. Txintxurreta)

Bahiketa baten aitzakian, gerrek utzitako zauriez, migrazioez eta ultrasokuinaren gorakadaz ari da Kepa Iribar *Erleen azken ziztada* lanean. Kazetari getariarrak bigarren nobela beltza du eman berri duena. Durangoko Azokaren atarian, Guka osatzen ari den *Datozenak* serieko erreportajea da hau.

Getariako olatu bat hartuta iritsi izan balitz bezala, Kepa Iribarrek (Getaria, 1975) *Erleen azken ziztada liburua* dakar besapean euriak blaitu eta jendez hustu duen Arroabera. Zaparrada bat azaroko astegun ilun batean: hau ere izan zitekeen nobela beltz baterako eszenatokia. Badaezpada, aterpean babestu dira idazlea eta haren eleberria.

Idazlea? Inor ez da atrebitu esatera idazle izaera aitortzeko zenbat liburu idatzi behar diren. Bigarrena eman du getariarrak, baina erosoago sentitzen den "kazetari" definizioan. "Liburu bat edo bi argitaratzek idazle bihurtzen badu bat, orduan bale, baina iruditzen zait idazlea hori baino gehiago dela", justifikatu du.

Kazetaria, beraz; irratigintzaren forma zurrunetatik birritan fikziora eskapu egin duen kazetaria. Argitu duenez, irratiko idazteko eraren "guztiz kontrakoa" darabil eleberrietan. "Idazten ari naizenean, ez dut sentitzen lanean ari naizenik", aipatu du. Jolasteko aukera ematen dio horrek: "Fikziozko mundu batean sartu, istorio handi bat eraiki, istorio horri logika eta errealismoa ematen saiatu, borobildu, sortzen diren oztopoak gainditu...", horretan datza Iribarren jolasak.

Fikziozko idazketara egin duen bigarren *impasse*-ra, hain zuzen, jolasteko plazerak eraman du. Lehenengo liburuan –72 *ordu* (Erein, 2022)– ideia batek eraman zuen idaztera; oraingoan berriz, idazteko gogoak behartu du istorio bat pentsatzera. Bilaketa hori komunikabideetatik abiatu zuela agertu du. "Garai hartan, 2022ko udara bukaeraz ari naiz, Errusiaren eta Ukrainaren arteko gerra pil-pilean zegoen. Oraindik komunikabideek hitz egiten zuten 2021eko apiriletik Bidasoa ibaian hil ziren zazpi pertsona migranteen inguruan. Bestalde, batean eta bestean hauteskundeak egin zituzten, eta denetan ultrasokuinak gora egin zuten", gogoratu du.

Idazteko bideaz "gozatu" duela ziurtatu du. "Abiapuntua erabat desberdina izan da. Lehenengo liburuekin bizi izan nuen prozesua gustatu zitzaidan, eta berriro bizi nahi nuen. Orduan, istorioaren bila hasi nintzen. Aurrena buruan eraiki dut istorioa, buelta asko eman dizkiot idazten hasi aurretik, eta nire ustez forma hartu duenean, orduan hasi naiz idazten", kontatu du. Fikzioak eskaintzen dituen jolasetan dibertigarriena nobela beltza da kazetariarentzat; genero horren irakurle sutsua da. "Istorioak harrapatzen zaituenean, kateatzen zaituenean eta irakurtzen segitzeko gogoia pizten dizunean, gustatzen zait" , azaldu du.

Bada, eman berri duen *Erleen azken ziztada* nobelarekin, harrapakari izatea dagokio Kepa Iribarri. Eta azalak dakar lehen zepoa: svastika nazi garden bat, marea baxuko goiz batean Getariako Gaztetape hondartzan Beñat Gerekak egindako argazki bati gainjarrita. Aingura bat azaltzen da, baina horrek zer esan nahi duen jakiteko amuari kosk egin eta liburua irakurri beharra dagoela ohartarazi du Iribarrek.

Bi hasiera

Erein argitaletxearekin eman du Kepa Iribarrek *Erleen azken ziztada*. Nobela berrian, 72 *ordu* liburuan biziara ziuten Aitor Letamendia detektibearen eta Edurne Rodríguez Ertzaintzako ofizialaren pertsonaia berreskuratu ditu, eta berriro ere, Getarian kokatu du itsasoak nabarmen zipiritinduko duen kontakizunaren zati bat. "Pertsonaia batzuk berreskuratu ditut ez niutelako agortuta ikusten. Edurne asko hazi da, erabaki nuen indar gehiago ematea, eta idazten ari nintzela, are eta indar handiagoa hartu zuen pertsonaia berak", esplikatu du. Bestalde, adierazi duenez, istorio bat pentsatzen hasten denean hiru geruzatan banatzen du: "Kontatuko dudana trama beltza, hori kontatu bitartean jorratu nahi ditudan gaiak –kasu honetan gerra, migrazioa, ultrasokuinaren gorakada...– eta eszenatokiak. Lehenengo liburuan derrigorrezko eszenatokia zen Getaria, bertan gertatu zelako [Juan Sebastian Elkanoren] lehorreratzea. Oraingoan, ez zen derrigorrezkoa, baina eroso sentitzen naiz hor, eguneroko tokietan".

Letamendiak eta Rodriguezek bahiketa bat argitzeko ardura dute, eta bide horretan, iraganaren eta orainaren arteko ispilu joko batera amilduko dira. Izan ere, Bigarren Mundu Gerrara doan soldadu gazte baten egunerokoaren bitartez, 1944ko Alemaniara leiho bat irekitzen du nobelak, eta bahiketa ikertzeko lanetan aurrera egin nahi badute, denboran atzera egitea ezinbestekoa izango dute poliziek. Getariarrak lehen pertsonan idatzi du soldaduaren zatia, eta hori izan da berarentzat idazketa prozesuko egiteko konplexuena. "16-17 urteko gazte alemaniar baten larruan sartu eta gerraren aurrean zer senti dezakeen kontatzea... hori izan da ariketarik sakonena", berretsi du. Hala, "bi hasiera" ditu nobelak, Iribarren hitzetan: batetik, Bigarren Mundu Gerraren garaian Bidasoa ibaiertzean gertatzen den hitzaurre bat, eta bestetik, Getariako bahiketa.

Iribarrentzat, irakurlearengan hausnarketa piztea ez da ezinbesteko helburua, zilegi baita bilbe beltzaren harrapakin izate soilarekin gozatzea. Hala ere, gogoeta merezi duten hainbat gai gordetzen ditu eleberriak, egungo errealtatearekin estuki lotuta daudenak. "Gerrak uzten dituen zaurien inguruan hitz egiten du liburua. Erakusten du nola, historia ahazten badugu, beti bueltatzen den. Ultrasokuinaren gorakada, eta horrek dakarren arrazakeria, homofobia eta beste, horrela azaldu daitezke", esplikatu du eleberraren egileak.

Kepa Iribarren azken liburua apaletan dago jada, Landako guneko erakusleiho handira iristear. Abanduen Sean aurkeztuko du *Erleen azken ziztada* Durangoko Azokan, 19:00etan. Lanak lapurtuko dio gainontzeko egunetan erakusmahaiaren atzean egoteko aukera, jakina baita kazetaria dela idazlea baino gehiago. Liburua, aldiz, han egongo da, zelatan, irakurleak ziztatu zain.

KULTURA

Azpeitia Gukak zu bezalako irakurleen babesa behar du tokiko informazioa euskaraz eta modu profesionalen lantzen jarraitzeko.

Izan Gukakide

Erantzun

AXA aseguruak
Azpeitia - Aseguru etxeak

Pilates eta Mugimendua
Azpeitia - Pilates

Mapfre aseguruak
Azpeitia - Aseguru etxeak

Maria Zunuzunegi psikologoa
Azpeitia - Psikologia

Gure txinpartak

Egunero da Euskararen Eguna

Mikel Gorrotxategi 'Alabier': "Jendeak dantza egiteak beste energia bat ematen digu trikitilarioi"

Idatziz jaso ditu esne berriketak Uxue Alberdik

Ikusienak

Mahai bueltan ospatu dute San Eloi eguna
Mailo Oiarzabal
abe 01, 15:45 **JAIAK**

Baserritar Bilgunea nekazal sindikatua aurkeztuko dute Azpeitian bihar
Nerea Uranga
abe 02, 09:00 **EKONOMIA**

Mikel Gorrotxategi 'Alabier': "Jendeak dantza egiteak beste energia bat ematen digu trikitilarioi"
Nerea Uranga
abe 02, 13:05 **KULTURA**

Erremonte Txapelketako finalistak, erabakita
Julene Frantzesena
abe 02, 08:00 **KIROLA**

Idatziz jaso ditu esne berriketak Uxue Alberdik
[DA]TOZENAK
Maria Maya Manterola
abe 02, 08:30 **KULTURA**

Argindarraren fakturan sos batzuk aurreztu nahi dituzten herritarrek Energia Bulegora jo dezakete
Aiziber Arzallus
abe 02, 13:14 **EKONOMIA**

UROLAKO KOMUNIKAZIO TALDEA KOOP. ELK

Soreasu auzoa zg., Dinamoia sormen gunea
20730 Azpeitia (Gipuzkoa)
Telefonoa: 943-15 03 58 | Helbide elektronikoa: azpeitia@ukt.eus

Codesyntaxek garatua



HONI BURUZ

LEGE OHARRA

PUBLIZITATEA

ARAUAK

HARREMANETARAKO

RSS



Gertuko informazioa, euskaraz

- AIARALDEA AIKOR AIURRI ALEA AMEZTI ANBOTO ANTXETA IRRATIA ATARIA AZPEITIA GUKA AZKOTIA GUKA BARREN BEGITU BERRIKETAN DROGETEN ITURRI ERRAN EUSKALERRIA IRRATIA GEURIA GOIENA GOIERRI TELEBISTA GUAIXE GUKA GUKA TELEBISTA HIRUKA KRONIKA MAILOPE NOAUA OIZMENDI TELEBISTA ORIO GUKA PLAENTXIA TXINTXARRI URIOLA ZARAUTZ GUKA ZUMAIA GUKA 28 KANALA

Matx Gurean Tlap

Tokikom publikitatea